




# BLACK IS BELTZA

# AINHUA





## FITXA TEKNIKOA

---

Euskal-argentinarr ekoizpena

|                               |  |
|-------------------------------|--|
| Ekoizpena                     | TALKA RECORDS & FILMS / BIB2 AINHOA AIE<br>LAGARTO FILMS / DRAFTOON STUDIO |
| Zinema generoa                | THRILLER POLITIKOA   |
| Hizkuntza                     | Euskara  |
| Animazio teknika              | 2D, 3D, CUT OUT  |
| Jatorrizko formatua           | FULL HD  |
| Soinua                        | 5.1  |
| Iraupena                      | 80 min   |
| Adin sailkapena               | 16 urtetik gorakoentzat egokia   |
| Banaketa Estatu Espainolean   | BARTON FILMS   |
| Estreinaldi data              | 2022ko irailak 30  |
| Nazioarteko salmenta agentzia | FILM FACTORY   |

## LANTALDE TEKNIKOA

---

Zuzendaria FERMIN MUGURUZA

Gidoia HARKAITZ CANO  
FERMIN MUGURUZA  
ISA CAMPO

Ekoizle eragileak JONE UNANUA  
HUGO CASTRO FAU

Ekoizpen zuzendaria MIREN BERASATEGI

Animazio zuzendaria IMANOL ZINKUNEGI  
Jatorrizko musika MAITE ARROITAJAUREGI "MURSEGO"  
Arte zuzendariak BEÑAT BEITIA  
MARIONA OMEDES

Konposizio digitalaren zuzendaria DANI AZPITARTE

Pertsonaien sorkuntza JOSEP HOMS  
AME TRES VOLTES REBEL

[www.blackisbeltza.eus](http://www.blackisbeltza.eus)

# SINOPSISIA

---

Ainhoa mirariz jaio zen La Pazen (Bolivia) Amanda ama atentatu parapolizial batean eraila izan ondoren. Kuban hazi eta 1988an, 21 urterekin, Euskal Herrira abiatuko da Manex aitaren lurraldea ezagutzera. Gatazka errepresibo batean, Josune kazetari konprometitua eta bere lagun kuadrilla ezagutuko ditu.

Horietako bat heroina gaindosi baten ondorioz hiltzen denean, Ainhoa eta Josune iniazio-bidaian murgilduko dira Libanotik, Afganistandik eta Marseilla hiritik barrena. Gerra Hotzaren azken urteak dira eta biak ala biak narkotrafikoko sareak trama politikoekin elkartzen diren mundu ilunean barneratuko dira.






# ZUZENDARIAREN OHARRAK

## Atarikoa

BLACK IS BELTZA transmedia proiektua azken 8 urteotan garatu dugu jendaurrean, baina, jakina, lehenagotik dator:

- 2014: eleberrigrafiak aurkeztu genuen, eta proiektuaren garaia eta sortze-prozesua testuinguruan kokatzen zituen erakusketa inauguratu Bilboko Alondegian (egungo Azkuna Zentroa).
- 2018ko iraila: helduentzako animaziozko filma Donostiako Nazioarteko Zinemaldian aurkeztu genuen, bere itaka propioa lortuz.
- Geroztik, 2020ko martxora arte, filma nazioarteko 40 jaialdi baino gehiagotan proiektatu da eta nik, zuzendari bezala, 100 aurkezpen baino gehiago egin ditut mundu osoko hirietan.
- Filma 2018ko urriaren 5ean estreinatu zen Espainiako Estatuan, eta 2019ko maiatzaren 8an Frantziako Estatuan.
- Banaketa digitala du Txinan eta, munduko gainerako herrialdeetarako, Netflix plataformaren katalogoan da 2021eko martxoaren 26tik.



## Proiektu berriaren interesa

1960ko hamarkadan girotutako BLACK IS BELTZAREN amaierak irekita uzten zuen protagonistak, Manexek, pirata eta justizia-gizon erromantikoak, hamarkadaren amaieran eta ondorengoetan gauzatu ahal izango zituen abenturen jarraipena, betiere benetako eta asmatutako pertsonaiak agertuko ziren gertaeretan murgilduta. Tenta-zioa argia zen, 1968aren bueltan eta 1970eko hamarkada mamitsuaren aurretik.

Baina nire ibilbideak ezaugarriren bat badu, hori haustura izan da, ustekabeko lema birak egitea. Kasu honetan, BLACK IS BELTZAREN jarraitzaileek Manexen abenturen jarraipena espero badute (Cor-to Maltésen ondareak eta bere bidaia-sagak gure pertsonaiaren ibilbidea markatuko balute bezala), oker daude; izan ere, bigarren zatiarekin (BLACK IS BELTZA II: AINHOA) aurrerapauso handia emango dugu eta, sanferminetako erraldoiek egiten duten bezala, geure buruaz dantzatzen, 21 urteko elipsia egingo dugu Amanda eta Manexen alaba protagonista bihurtuz: **AINHOA**.



## Ainhoa

Bigarren zati honetan, 21 urteko neska bat Gerra Hotzeko azken uneetako gertaeren lekuko izango da. Haren begiradaren bitartez, hamarkada bateko ilunabarra markatu zuten gatazkak eta batzuek “historiaren amaiera” deitu zutena ikusiko ditugu.

1980ko hamarkadaz asko hitz egin da, hamarkada haren mitifikaziora iritsi dira batzuk, nahiz eta berunezko urteak ere izan lurralde askotan. Izan ere, ez da orduko gordintasuna kontuan hartzen. Zentzu horretan, BLACK IS BELTZaren entrega berriak munduko arazoek bat egiten zutela erakutsiko du, nola tokian tokikoa eta globala elkarri lotuta zeuden, eta globalizazioa hitza zergatik hasi zen erabiltzen, hain zuzen ere, 1988an, gure film berria kokatuta dagoen urtean.

## Testuingurua

Lehen zatian bezala, honetan ere bidaia izango da protagonista. Berriz ere, inimizazio-bidaia izango da, baina ez bete beharreko misio batekin. Protagonistek egitura narratiboa markatuko dute, gertaeren ondorioz gero eta ezbehar handiagoei aurre eginez. Hala, gatazka handiak itxuraz konponbidean dauden mundu batean mugitu beharko dute (Irak-Iran gerra, Afganistan, Libanoko gerra zibila, ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko Aljerreko bake prozesua...), baina ematen duena baino eztabaida geruza gehiago daude.



## Gidoiaren idazketa

Lehen zatian bezala, gidoia lau eskuz idatzi dugu Harkaitz Canok eta biok.

Beste behin ere, garai hartako dokumentazioa zehatza izan da: dokumentalak, liburuak, filmak, argazkiak... Diferentzia honakoa da: orain, dena nire bizipen pertsonalez blai dago, 1988an 25 urte baintuen.

Lehen zatian Eduard Sola izan zen hirugarren gidoilaria, eta bigarren zati honetan Isa Camporen laguntza izan dugu. Gidoilaria, ekoizlea eta zinema zuzendaria, Isaki Lacuesta-rekin batera bi Urrezko Maskor irabazi ditu “Los pasos dobles” eta “Entre dos aguas” filmengatik. Isa Campok emozioen bidez bideratu du trama, pertsonaien thriller puntua bilatuz, baina, aldi berean, oso errealista. Horrela, protagonistek hainbat geruza hartu dituzte: esaten dutena, pentsatzen dutena, autoengainuak, dakitena, ezagutzen ez dutena eta isiltzen dutena.





## **Bizitza eta heriotza 1980. Hamarkadan**

Urte horietan bizi izan genuen intentsitatea ez zetorren bat gonbidatu beldurgarria zen heriotza goiztiarrarekin. Euskal Herrian konbinatu perfektua genuen: ETaren atentatuak, gerra zikina, errepresioa, kalitate handiko heroinaren sarrera masiboa, HIESaren mehatxua.

Nire anaia Iñigoren heriotzak, 2019ko irailean, suntsipen sakona eragin zidan. 1984an gure lehen lehen ska-punk taldea, Kortatu, sortu genuenetik nire musika bidelaguna zen. Iñigok 54 urte zituen, eta asko hausnartu nuen Kortaturekin oholtza partekatu genuen musikarien belaunaldiaz. Talde horietako batek ere ez zituen kide guztiak bizirik: la Pollak bateria galdu zuen bihotzekoak jota, Gavilan-ek (Tijuana in Blue) bere buruaz beste egin zuen, eta beste talde batzuetako beste musikariei heroinak eraso egin zien edo HIESak.

Horrela, elkarrekin gehien jo genuen bandak, Cicatrizek, 4 kideak galdu zituen; Eskorbutok 3tik 2; RIPEk 4tik 3; Vulpesek bateria-jotzailea; Vómitok bere abeslaria eta eskolatik nire lagunik onena zena, Biktor Pérez...

Estatuko aparatuek planifikatutako heroina-sarrera masibo hura nahita egindakoa al zen, gazteria errebelde eta borrokalari bat desmobilizatzeko? Nor gehiago zegoen inplikaturik estrategia politiko hartan eta haren ondoriozko irabazian? Zein ziren erabiltzen zituzten narkotrafikoko ibilbideak? Munduko zein toki gehiagotan gertatu zen fenomeno hori, eta zergatik?

Gai horiei buruzko eztabaidak piztuta daude oraindik, eta BLACK IS BELTZA: AINHOA-k, garai hari omenaldia egiten dion soinu banda originala izateaz gain, zer esana emango du eztabaida honi egindako ekarpenarekin.





## Adierazpen berri bat animazioan

Helduentzako animazioa pixkanaka istorioak kontatzeko teknika berri gisa sendotzen ari da. Aurretik ekoizpena murrizta zen (“Persépolis”, 2007; “Vals with Bashir”, 2009; “Chico y Rita”, 2011; “Arrugas”, 2012; “Psiconautas, los niños olvidados”, 2015; “La tortuga roja”, 2016), 2018tik aurrera helduentzako 10 animazio film baino gehiago estreinatu dira nazioartean, eta animaziorako berriazko sariak sortu dituzte, hala nola, Iberoamerikako Quirino Sariak (hirugarren edizioa 2020an) eta Emile Awards sari europarrak (lehen ekitaldia 2017ko abenduan).

Norabide horretan bertan kokatzen da Nirvanako liderraren bizitzari buruzko dokumentala osatzen duen animazioa (“Kurt Kobain, Montage of Heck”, 2016), non teknika honetara jotzen den bere errepertorioa sortu zuen bizitu zituen larritasun existentzialeko uneak kontatzeko, fikziozko film musikaletan edo dokumentaletan animazioaren erabilera berriro arakatuz, Sex Pistol-i buruzko “The Great Rock ‘n’ Roll Swindle” (1980) eta Pink Floyd-i buruzko “The Wall” (1997) erreferentzialetan bezala.

Are gehiago, hirugarren bide bat garatzen ari da, Disney/Pixar/ Dreamworksen nagusitasunaren eta Ghibly estudio totemiko japoniarren artean bidea irekitzen ari dena. “Another Day of Life” (2018), “J ‘ai perdu mon corps” edo “Les hirondelles de Kabul”-en (biak 2019koak) animazioko lengoia estetiko berriek BLACK IS BELTZA kokatzen den korrante berri bat berresten dute.

Juanba Berasategi euskal animazioaren aitabitxiak, bere heriotzaren ondoren Black is Beltzaren lehen zatia eskaini genionak esan zuen bezala, «animazioa erresistentzia ariketa bat da», eta BLACK IS BELTZA II: AINHOArekin, bidea egiten jarraitzen dugu.

*Fermin Muguruza*









## AINHOA


1967ko urriaren 9an jaio zen modu traumatikoan, Che Guevara Cochabamban hil zuten egun berean, La Pazen (Bolivia) izandako ustezko auto istripu batean ama kubatarra hil ondoren.

Kuban hazia, tarteka bakarrik bisitatzen duen aita euskaldun baten absentziarekin, 18 urte ditu 1985ean historia hasten denean, eta Arte Ederretako ikaslea da, argazkigintzarako zaletasun handiarekin. Bere artista gogokoena Frida Khalo da, eta dantza eta musika maite ditu beste ezeren gainetik. Bere musikari gogokoenak Benny Moré eta Bob Marley dira.

Arte martzialak praktikatzen ditu eta santeriarekiko harremanak ezkutatzen ditu, batez ere, bideak irekitzen dituen Elegua jainkoarekiko begirunea du. Edozein arriskutatik babesten duela dirudien lepoko moduan darama.

Ez du bizitza erraza izan, eta eguneroko borroka gauean jasan ohi dituen amesgaiztoetan islatzen da, baina, hala ere, neska gazte bat da, gogortu eta beti bidea irekitzen jakin duena.

Frantsesez eta ingelesez hitz egiten du, baita gaztelaniaz eta euskaraz ere. 21 urte betetzear dela, argazki kamera batekin egingo du lehen bidaia Europara, bere aitaren opariarekin, eta, istorioak aurrera egin ahala, ikusiko dugu lehen begiratuan erakusten dituenak baino geruza gehiago dituen pertsonaia dela.



## JOSUNE

1964an jaio zen Bilbon. 24 urte ditu eta kazetaritza ikasketak amaitu berri ditu. Praktikak *Egin* ezkerreko egunkari independentistan egin zituen, eta bertan egiten du lan gaur egun.

Bere betiko zalantza: zeinen alde dabil kazetari bat lubakitik gerraz informatzean? Idazten duzun errealitatea alda dezakezu? Eta Ryszard Kapuscinski kazetaritzaren maisu poloniarra da bere itsasargia.

Iruñera joan zen Diego punk militanteaz maitemintzean. Euskal Herriko errealitatearekin eta internazionalismoarekin konprometituta, torturak jasan zituen atxilotu zutenean, eta 10 egunez inkomunikatuta egon ondoren, kargurik gabe atera zen.

Garai hartako euskal rock erradikalak erotu egiten du: Kortatu, Eskorbuto, La Polla Records, eta Nina Hagen da gustukoen duen nazioarteko artista.

Polizia-karga baten ondoren ezagutzen du Ainhoa Iruñera iritsi berritan, eta berehala konektatzen dute. Bien artean sortzen den adiskidetasuna estutu egingo da, Diego gaindosiak jota hil ondoren, bidaia elkarrekin jarraitzeko Ainhoaren gonbidapena onartzea erabakitzen duenean.





*AINHO*Aren ahotsa  
**MARIA CRUICKSHANK**



## AHOTS-AKTOREEN ZERRENDA

|                     |                       |
|---------------------|-----------------------|
| MARIA CRUICKSHANK   | Ainhoa                |
| ITZIAR ITUÑO        | Josune                |
| MANEX FUCHS         | Hamid                 |
| ANTONIO DE LA TORRE | Rafael                |
| DARKO PERIC         | Igor                  |
| ARIADNA GIL         | Isabelle              |
| ENEKO SAGARDOY      | Diego                 |
| MIKEL LOSADA        | Mikel                 |
| RAMON AGIRRE        | Xebero                |
| MIREN GAZTAÑAGA     | Amatxi Tere           |
| MAITE LARBURU       | Iman                  |
| XIMUN FUCHS         | Jean-Pierre           |
| GORKA OTXOA         | Iñigo Kortatu         |
| FERMIN MUGURUZA     | Fermin Kortatu        |
| JON PLAZAOLA        | Javier Salutregi      |
| PEIO BERTERETXE     | Didier                |
| MARYSE URRUTY       | Armineh               |
| ISIDRO              | Isidro                |
| JOSEBA SARRIONANDIA | Martin                |
| MARIA FORNI         | Yady                  |
| IBAN RUSIÑOL        | Commissaire Marcel    |
| NATALIA ABU-SHARAR  | off Sabra eta Shatila |
| MORAYSYS SILVA      | Tania                 |
| MAYKEL GARCÍA CARDO | Felix <i>The Cat</i>  |
| BRUNO COSCIA        | Arthur                |
| MARIA AMOLATEGI     | Amaia Apaolaza        |
| PAPET-J             | Chef Chérif           |





## JATORRIZKO MUSIKA

### MAITE ARROITAJAUREGI “MURSEGO”

Mursego da Maite Arroitajauregi. Mursego saguzarra da portugesez. Mursegok musika egiten du, txeloa, pedal loop stationa, txistua, txindata txinarrak, pistoi txirula, panderoa, ukelelea, koloretako argidun teklatua, autoharpa, erimak, txaloak, inprobisazioa eta ahotsa erabilita. Maitek txeloa jo du euskal musika talde askotan: Anari, Lisabö, Xabier Montoia, Ama say, etab.


Mursego da bere bakarkako proiektua. 2009ko apirilean grabatu eta argitaratu zuen lehen diskoa, Bat (1), autoedizioan. 2012 urtearen amaieran, Maitek, Mursegok, bigarren diskoa kaleratu zuen, Bi (2). Bilakaera nabarmena izan zuen soinuan, esperimentaziotik aldendu eta abesti-formatura hurbilduta. Denboraldi bat igaro zuen zinemako (Emak Bakia, Invisible), dantzako eta antzerkiko proiektuetan lanean eta, ondoren, hirugarren diskoa, Hiru (3), etorri zen; behin betiko berrespina izan zen, eta aurrerapauso bat gehiago gero eta berezi eta liluragarriagoa den unibertsoan.

Zineman berriz ere lanean aritu ondoren (Asier Altunaren “Amama” eta Fernando Francoren “Morir”), eta Harkaitz Canorekin eta Ixiar Rozasekin pieza eszeniko bana zuzenean aurkeztu ostean, beste proiektua garatu zuen: “100% Oion”, oiondarrekin eta oiondarrentzat (Araba) grabatutako disko kolektiboa.

2021ean musika onenaren Goya saria irabazi zuen “Akelarre” filmean egindako lanagatik, Arantzazu Callejarekin batera.







Brenda Navarrete

Benny More

Broken Brothers Brass Band

Barricada

Wajha Pastagari

Murrup

Mossilia Sound System

RIP

Mikel Laboa

Bakht Lajina

Amal Mirkes

Velate Me

Cicatriz

Khan Qorabaghi

Imanol

Joseba Tapia

Nequ Gorriak

Tania Saleh

Kortatu

Redskin

The Fogues

Soapkills





## FERMIN MUGURUZA

### ZUZENDARIA

Nazioarteko proiektzioa duen musikaria, lehenik Kortatu eta Negu Gorriak taldeekin, eta gero bakarka, dokumentalak egiten hasi zen 2006an. Urte horretan, TALKA RECORDS & FILMS musika- eta zinema-ekoiztetxea sortu zuen, eta bertan, jatorrizko soinu banden zuzendari, gidoilari, ekoizle eta sortzaile gisa lan egin du.

Galiziako Amal Jaialdian dokumental onenaren saria jaso zuen "Checkpoint Rock"-engatik, Bartzelonako In-Edit Jaialdian dokumental onenaren saria "Next Music Station" seriearengatik, aipamen berezia Glasgow-ko KRAFTA DOC INTERNATIONAL-en - Art MAKING FILM FESTIVAL "NOLA?"-gatik, animaziozko filmik onenaren saria Monterreyko Nazioarteko Jaialdian "Black is Beltza" filmagatik, eta soinuazko diseinurik onenagatik Iberoamerikako animaziozko Quirino Jaialdian film beragatik.


### FILMOGRAFIA

- 2006** *Bass-que Culture* (dokumentala)
- 2009** *Checkpoint Rock*  
*Musica desde Palestina* (dokumentala)
- 2011** *Next Music Station* (Arabiar musikari buruzko 11 dokumental)
- 2012** *Zuloak* (dokumentala-mockumentary)
- 2013** *No More Tour* (dokumentala), Daniel Gomezekin batera zuzendua
- 2015** *NOLA ? Irun meets New Orleans* (dokumentala)
- 2018** *Black is Beltza* (animazio film luzea)
- 2019** *Beltza Naiz* (dokumentala)
- 2022** *Black is Beltza II : AINHOA* (animazio film luzea)

# TRANSMEDIA



**JATORRIZKO SOINU BANDA**  
(2 LP / CD / Digitala)  
Kaleratze data: 2022ko irailak 15



**ELEBERRI GRAFIKOA**  
Marrazkilaria:  
Susanna Martin

Kaleratze data:  
2022ko urriak 6

Euskara: Elkar Editoriala  
Gaztelania: Reservoir Books  
Katalana: Pol-Len Edicions  
Galiziera: Demo Editorial



BANAKETA / PROGRAMAZIOA:



T. 0034 944 240 559

bartonfilms@bartonfilms.com

www.bartonfilms.com

Nazioarteko Salmenta Agentzia:

**FILM FACTORY**

Kontaktua:

Manon Barat <manon@filmfactory.es>

Komunikazio Arduraduna:

**NAGORE VEGA**

nagorevega@blackisbeltza.eus

+34 619 513 016

Black Is Beltza BlackisBeltza blackisbeltza.2.ainhoa

[www.blackisbeltza.eus](http://www.blackisbeltza.eus)





A FILM BY **FERMIN MUGURUZA** REN FILM BAT

MARIA CRUICKSHANK ITZIAR ITUÑO MANEX FUCHS ANTONIO DE LA TORRE ARIADNA GIL DARKO PERIC ENKO SAGARDOY



# BLACK IS BELTZA

# AINHUA

DIRIGIDA POR FERMIN MUGURUZA  
GUIÓN DE DANIELA ZARAGOZA Y DANIELA ZARAGOZA  
BENAT BETTA MARIANO DANI AZPIARTE JONE UNANUA JOSEP HOMES AME TRES VOLTES REBEL DICCIONARIO IÑAKI HOLGADO SONIA VICTOR SANCHEZ  
PRODUCIDA POR MIKEL ANTERO COPRODUCIDA POR DANIELA ZARAGOZA JOSEBA PONCE MATE ARROITAJAUREGI KEPA DE ORBE HUGO CASTRO MIREN BERASATEGI  
EDITADA POR FERMIN MUGURUZA IÑAKI HOLGADO IÑAKI HOLGADO  
UNA CO-PRODUCCION DE REN FILM BAT

LABORAL C/ERRETA 10 48940 LEZAMA (VIZCAYA) VIZCAYA  
elkar VISCA ARATZ  
hatakrak GestiGestiza  
E BARRIOBARRIO deitb  
laGrocine VIZCAYA